

# **IKERTZAILE DOKTOREEN HOBEKUNTZARAKO DOKTOREGO ONDOKO PROGRAMEN DEIALDIA**

**2021-2022**

## ***Laguntza berriak***

### ***Deialdiaren xedea:***

Laguntza berriak emango dira EAEko ezarpen zentroetan izango diren ikertzaile doktoeren hobekuntzarako eta aldi baterako atzerria joango diren ikertzaile doktoeren desplazamendurako. Horretaz gainera, 2020-2021 ikasturterako emandako laguntzak ere berrituko dira.

### ***Diru laguntzen ezaugarriak:***

Ikerketa Orokorren lerroan gehienez 25 laguntza berri emango dira eta Ikerketa Espezifikoarenean gehienez 3; 2 neutronikaren arloan eta 1 hezkuntzaren arloan.

Ikerketa-arlo espezifiko hauetarako eska daitezke laguntza berriak:

- a) Neutronika:
  - Polimeroen eta sistema makromolekularren ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
  - Energiarako materialen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
  - Material funtzionalen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
  - Sistema biologikoen eta material bio-inspiratuen ikerketari aplikatutako neutroien teknikak.
- b) Hezkuntza:
  - Digitalizazioa: Metodologia eta gaitasun tekno-pedagogikoak eta berauek ingurune digitaean-ingurune presentzialean integratzea.
  - Steam proiektuak: gaitasun zientifiko-teknologikoak eskuratzea eta ikasleen Steam arloekiko jarrera aldatzea.
  - Kulturartekotasuna eta eskola-arrakasta: metodologiak eta hizkuntza-gaitasunak ingurune inklusiboetan.

### ***Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:***

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiar Sistemara sartzeko kontratu baten ezaugarriak izango dituzte laguntzek (LCTIren 22. artikulua).

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du eta bi urte gehiagoz luzatu ahalko da. Kontratuak 2022eko urtarrilean formalizatuko dira. Onuradunek 28.280 euro gordin jasoko dituzte urtean.

### **UPV/EHUko KONPROMISO AGIRIA LORTZEKO PROZEDURA:**

Eskatzaileek 2021eko irailaren 2ra arte (egun hori barne) izango dute dokumentu hauek aurkezteko posta elektronikoz ([pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus)), mezuaren gaiari "POSDOC deialdia Eusko Jaurlaritzan" jarrita:

1. **NANaren kopia.**
2. **Doktore tituluaren kopia.**
3. **Datu pertsonalen fitxa.** Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.

4. **UPV/EHUko ikertaldeko/proiektuko ikertzaile nagusiak sinatutako ziurtagiria** (Deialdiko 26.13 artikulua). Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.

**Data horretatik aurrera ez da konpromiso agiri gehiago egingo. Beranduago jasotzen diren eskaerak okerrak zuzentzeko prozeduraren ondorioz atendituko dira.**

***Eskaerak aurkezteko epea eta modua:***

Eskatzailea arduratuko da eskaera betetzeaz eta deialdiko oinarrietako 21. artikuluan adierazitako bideetako edozein erabiliz erregistratzeaz. Horretarako epea **2021eko irailaren 8an (egun hori barne)** amaituko da.

***Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):***

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzerritik: 00 34 945 018000

***Informazio gehiago:***

[https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2021/posdoc/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2021/posdoc/web01-tramite/eu/)